

ikAPPsi ingurumenagatik!

ARBOLAPP

Arbolen ezagutzan sakondu nahi duzu? Zuhaitz bat identifikatzeko elementurik garrantzitsuenak zeintzuk diren jakin nahiko zenuke? Erantzuna baiezkoa bada, adi!

Aplikazio honen bitartez modu erraz batean eta aldez aurretik ezer ez jakin beharrik gabe, Iberiar Penintsulako eta Balear Uharteetako zuhaitz arruntenak identifikatu eta beraiei buruzko xehastasunak ikasi ahalko dituzu. Ingurune naturalean zuhaitzak identifikatzeko tresna egokia da. Gainera, horiek erabiliz, identifikazio-elementu nagusiak zeintzuk diren ikasiko duzu, eta aholku ugari emango dizkizu.

Zelan funtzionatzen du?
Aukeren artean xehasten joan:



Kokapena




Hostoa



Lorea



Fruitua



Eta abar

Eta lortu:



Zuhaitzaren
fitxa

Aplikazioa WiFi puntura konektatuta zaudenean deskargatzea gomendatzen dizugu, zuzenean funtzionatzeko behar duen informazio guztia deskargatuko du. Ondoren, ez du Interneteko konexiorik beharko, eta honek ezin hobea bihurtzen du irteera bat egiten dugunerako, askotan estaldura galtzen baitugu.

Doako aplikazio hau tabletetan, Android-en edo iOSen erabil daiteke, baina, sistema eragile horiek erabiltzen ez badituzu, web orriaren bidez erabil dezakezu. Web-orriak funtzio berberak ditu eta: <http://www.arbolapp.es/>

